

E MAILA**AUTONOMIA KALEKO MULTZOA**

Egileak eta data: Manuel Ugarte, Manuel Dominguez Barros, Lucas Alday eta Ignacio Trecu 1906 – 1923

Deskribapena

16 bizitegi eraikinek osatutako multzoa da, guztiak III. mailan katalogatuta daude eta mehelinekin daude lotuta. Autonomia kalearen eta Osasun Iturria kalearen arteko desnibela gainditzen duen eta azken lau eraikinak bereizten dituen eskailerak soilik eteten du jarraitasun hori –puntu horretan, hain zuzen ere, eteten da lerrokadura orokorra–. Beren fatxada bateratua eskema bereko eraikuntza luzeena bezala geratu da. Gaur egun, Easo plazaren aurrealde nagusia da. Zabaldurako etxadietatik espazio horretara sartzean aurretiko bista etengabearen perspektiba agertzen da. Garai horretarako etxebizitza apalez osaturiko multzoa da, erreferentzia modernisten dekorazio sinpleekin eta fatxada eraikitzeo kalitate soilarekin eta konposizio erregularrarekin.

“Autonomia kalea” multzoaren babes erregimena.

* Ez dira jasodurak onartzen.

* Autonomia kalera fatxada duten eraikinen babes erregimena:

- Fatxadek tratamendu bateratua izango dute fatxadaren akabera materialari dagokionez (harlandua edo, zaharkituta geratzearekin edo haren gabeziarekin lotzen diren arrazoiek behar bezala justifikatutako kasuetan, harlandu horrekin lotzen den irudia mantentzea bermatzen duten beste soluzio batzuk –xaflatuak, eta abar–).
- Espazio publikotik (Easo plazatik, eta abar) ikusten den zatian, kale horren 1 eta 13 zenbakien artean dauden eraikinen estaldurak, biak barne, tratamendu bateratua izango dute materialei dagokienez eta txapitulen antolamenduari dagokionez. Instalazioak (antena, ...), igogailuen etxolak, eta abar ezartzearekin lotzen diren behar bezala justifikatutako eskakizunen kaltetan izan gabe, Autonomia 2 eraikina hartuko da arlo horretako jardunaren eredu gisa. Txapitulak antolatzea baimenduko da gaur egun halakorik ez duten eraikinetan, betiere eredu horretara egokitzen badira eta fatxadako bakoekin lerrokatzen badira.
- Finkatu egiten dira kale horretako 14, 15 eta 16 zenbakietan kokatzen diren eraikinetako azken oin mantsardatuak (gainerako eraikinez bestelako soluzioei jarraitzen diete). Horiek ordezkatu behar badira edo bimoldaketa integrala egin behar bada, oin mantsardatu horiek tratamendu bateratua izango dute, jardun hori egiteko sustatzen eta onartzen den lehen proiektuak zehazten dituen jarraibideen arabera. Proiektu horrek justifikatu eta bermatu egin beharko du proposamena egokitu egingo dela multzoko eraikinen tratamendu eta babes erregimen globalera.
- Finkatu egiten dira gaur egun dauden balkoietako burdineria modeloak, multzoko eraikin guztiak modelo berera moldatu behar izan gabe.
- Arotzerietako kolorea honako irizpide hauetara egokituko da:
 - . Eraikin horien multzoko goi oinetako arotzeria ez da, halabarrez, kolore berekoa izango.
 - . Eraikin horietako bakoitzeko goi oinetako arotzeria kolore berekoa izango da. Kolorea zehaztu aurretik, kolorea multzoaren eta bertan barnean hartzen diren eraikinen babes baldintza orokorretara eta

berariazkoetara egokitzen dela justifikatu beharko da, betiere Udalak arlo horretan ezartzen dituen baldintzetan.

Behe oinetako arotzeria C mailako eraikinetarako ezarritako babes irizpideetara egokituko da.

* Osasun Iturri kalera fatxada duten eraikinen babes erregimena:

- Eraikin horietako fatxadak indarrean dagoen plangintzako –Plan Berezi hauetako Ordenantza Orokorrak barne– "a.21 Antzinako Zabalguneko bizitegi" tipologiako eraikinen tratamendua erregimen orokorraren mende geratuko da.

Multzoan barnean hartzen diren eraikinen zerrenda:

1.- Autonomia 01	C maila
2.- Autonomia 02	C maila
3.- Autonomia 03	C maila
4.- Autonomia 04	C maila
5.- Autonomia 05	C maila
6.- Autonomia 06	C maila
7.- Autonomia 07	C maila
8.- Autonomia 08	C maila
9.- Autonomia 09	C maila
10.- Autonomia 10	C maila
11.- Autonomia 11	C maila
12.- Autonomia 12	C maila
13.- Autonomia 13	C maila
14.- Autonomia 14	C maila
15.- Autonomia 15	C maila
16.- Autonomia 16	C maila